

BESTELAKO XEDAPENAK

HEZKUNTZA SAILA

4842

AGINDUA, 2018ko irailaren 17koa, Hezkuntzako sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko itunpeko ikastetxe pribatuetan eskola-kontseiluetako kideak aukeratzeko hauteskunde-prozesua zabalitzen duena.

Urtarrilaren 22ko 7/1997 Dekretuak (urtarrilaren 30eko 10/2007 Dekretuak aldatutakoa) Euskal Autonomia Erkidegoko itunpeko ikastetxe pribatuetan eskola-kontseiluak hautatzeko eta berritzeko prozesua arautzen du.

Dekretu horiek ezartzen dutenez, ikastetxeetako eskola-kontseiluen erdi biak urte bitik behin berrituko dira, txandaka.

Eskola-kontseiluetako kideen azken hautespena 2016-2017ko ikasturtean egin zen eta, beraz, 2018-2019ko ikasturteko lehen hiruhilekoan egin behar da berrikuntza.

Hezkuntzako sailburuari dagokio dagokion hauteskunde-prozesua egiteko epea zabalik dagoela aldarrikatzea.

Hori dela-eta, eman zaizkidan eskumenak erabiliz, hau

XEDATZEN DUT:

1. artikulua.– 1.– Euskal Autonomia Erkidegoko itunpeko ikastetxe pribatuetan eskola-kontseiluetako kide batzuk, egokitzen direnak, aukeratzeko hauteskunde-epea zabalik dagoela adieraztea.

2.– Hauteskunde-prozesua urtarrilaren 22ko 7/1997 Dekretuak (urtarrilaren 30eko 10/2007 Dekretuak aldatutakoa) xedatutako moduan egingo da; haren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko itunpeko ikastetxe pribatuetan eskola-kontseiluak hautatzeko eta berritzeko prozesua arautzen da.

2. artikulua.– Hauteskundeak 2018ko azaroaren 14a eta 16a bitartean egingo dira ikastetxe guztietan, eta ikastetxeko eskola-kontseilu berriak 2018ko abenduaren 14a baino lehen egon beharko du osatuta. Behin ikastetxeko eskola-kontseilua eratutakoan, organo horrek pertsona bat izendatuko du gizonen eta emakumeen artean benetako berdintasun eraginkorra sustatzeko hezkuntza-neurriak bultzatzen.

AZKEN XEDAPENETAKO LEHENENGOA

Agindu honen aurka berraztertze errekurtsoa jar diezaiokete interesdunek Hezkuntzako sailburuari hilabeteko epean. Bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa jar dezakete Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, bi hileko epearen barruan. Kasu bietan, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian agindua argitaratu eta biharamu-nean hasiko da kontatzen epea.

2018ko urriaren 4a, osteguna

AZKEN XEDAPENETAKO BIGARRENA

Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean izango ditu ondorioak.

Vitoria-Gasteiz, 2018ko irailaren 17a.

Hezkuntzako sailburua,
CRISTINA URIARTE TOLEDO.